


**GRADU AMAIERAKO LANA (GRALa) EGIN ETA
DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA**

**SORKUNTZA ETA
DISEINUKO GRADUA**

ARTE EDERREN FAKULTATEA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

1. SARRERA

Dokumentu hau 2014ko abenduaren 12an onartu zuen Ikastegiko Batzarrak, eta 2012ko maiatzaren 17an onartutakoa ordezkatu du. Bere helburua da Sorkuntza eta Diseinuko Gradu Amaierako Lanaren ezaugarriak eta berezitasunak egokitzea Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeko oinarritzko arautegira. Oinarritzko arautegia UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2012ko maiatzaren 16an, eta 2012ko ekainaren 19an argitaratu zen EHAAn.

Dokumentuak jarraibideak ematen ditu GRALaren definizioaz, bera egiteko prozeduraz, defentsaz, kalifikazioaz eta tramitazio administratiboaz. Arautegi hau UPV/EHU indarrean diren gainerako arautegi eta prozedurek osatzen dute, alegia, ebaluazioari, kredituen aitortpen eta transferentziari eta ikasleen mugikortasunari buruzko arauak, "Graduko ikasketen gestiorako arautegia" deritzon biltutakoak.

2. GRADU AMAIERAKO LANA ZERTAN DEN

Oraingo ikasketa planean GRALa 4. mailako 2. lauhilekoko nahitaezko gaia da eta 18 ECTS kreditu balio du. Ikasleek zuzendari bat izango dute alde aurretik izendatuta GRALa egiteko.

2.1. Gradu Amaierako Lanean ikasle batek —edo batzuetan ikasle talde batek— proiektu, diseinu edo arte sorkuntza aplikatu orijinal bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean. Lan horretan ikasleak erabili eta garatu behar ditu graduan eskuratutako edukiak nahiz gaitasun eta trebetasunak.

Proiektu pertsonal horretan ikasleak frogatu beharko du mailako eta graduko gaitasunak eskuratu dituela. Lanak parte hauek izango ditu: prozesuaren berri ematen duen eta hartaz hausnarketa egiten duen dokumentazioa (dosierra); parte praktikoa; eta lanaren aurkezpena eta defentsa epaimahai baten aurrean.

2.2. GRALean ikasleak titulazioari dagozkion gaitasun oinarritzko eta orokorrak eta GRALari berari dagozkion gaitasun espezifikoak aplikatu behar ditu adimenduzko ezagutzak eta zentzumenen bidezko esperientzia modu sortzailean bateratuz. Era berean, ikerketa eremuko datu esanguratsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatu beharko ditu, bai eta gogoetan oinarritutako iritziak eman ere, arte, gizarte, zientzia, teknologia edo etikari lotutako gai garrantzitsuez, sentiberatasuna eta pentsamendu kritiko, logiko eta sortzaile garatzeari begira.

2.3. GRALean jorratu ahal izango da Sorkuntza eta Diseinuko Graduan landutako edukiekin zerikusia duen edozein arlo. Gaien aukeraketa eta zuzendarien esleipena errazteko, fakultatean egoitza duten sailek dokumentu bat egingo dute non arlo eta ildo posibleak eta haietan diharduten irakasleen izenak jasoko dituzten.

2.4. Gradu Amaierako Lana defendatzeko eta ebaluatua izateko, ikasleak egiaztatu egin beharko du ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela eta, hortaz, GRALari dagozkion kredituak izan ezik, titulua lortzeko behar diren kreditu guztiak dituela. Salbuespenez, matrikulatu ahal izango dira GRALean laugarren mailako irakasgai bat, 6 ECTS kredituren parekoa, gainditzeke daukaten ikasleak. Errendimendu akademikoaren tasak ateratzeko ez dira kontuan hartuko GRALaren emaitzak, baldin eta gainerako kreditu guztiak gaindituta ez izateagatik ikasleak proiektua defendatu ezin izan badu.

2.5. GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legearen babespean dago. Beraz, jabetza intelektualeko eskubideak lanaren egilearenak dira.

2.6. Fakultateak behar diren baldintzak ezarriko ditu, bere posibilitate errealean barruan eta zuzendariaren gidaritzapean, ikasleek Gradu Amaierako Lana egin ahal izateko.

3. IZENA EMATEA ETA DEIALDIAK

3.1. Gradu Amaierako Lanaren matrikula Arte Ederren Fakultateak matrikularako ezarritako epeetan egingo da, lanak dituen kredituen arabera prezio publikoak ordainduz. Gradu Amaierako Lanaren matrikula egiteko, ikasketa plana bukatzeko eskatzen diren irakasgai guztietan matrikulatuta egon beharko da ikaslea nahitaez.

3.2. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialera aurkezteko, Ikastegiko Batzarrak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Ikasturteko bi deialdietako batean (uztailean edo irailean) lana defendatu ez duten edo ebaluatuak izan ez diren ikasleak berriz matrikulatu beharko dira hurrengo ikasturtean eta ostera ere ordaindu beharko dituzte tasak hurrengo deialdietara aurkeztu ahal izateko, dela urtarril-otsaileko aparteko deialdira joateko nola uztaileko ohikora edo iraileko ezohikora aurkezteko.

3.3. Ikasleek GRALa zein hizkuntza ofizialetan egin nahi duten zehaztuko dute matrikulan.

3.4. Ikastegiak, antolaketarako eta ikasketen programaziorako irizpideak aintzat hartuta, GRALen defentsak banatu ahal izango dituzte ikasturtean zehar, baina, ahal dela, multzoetan bilduko dituzte, ohiko eta ezohiko deialdietan. Datak ikasturte bakoitzeko egutegi akademikoan adostuko dira. Edozelan ere, ikasleei modua emango zaie GRALeko matrikula egiteko ziur dakitenean beste irakasgai guztiak gaindituta eta kreditu guztiak eginda dauzkatela.

3.5. Gradu Amaierako Lanaren ebaluazioaren akta unibertsitateko ebaluazio araei jarraiki itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraiki administrazio zerbitzuei helaraztea. Ikastegiko zuzendaritzaren eginkizuna da artikulu honetan jasotakoa bete egiten dela zaintzea.

4. ZUZENDARIA, HURA ESLEITZEA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA

4.1. Gradu Amaierako Lanaren zuzendaria izango da graduan eskolak ematen dituen saileko irakasle bat edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitako bat. Irakaslearen ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta defentsaren aurretik txostena idaztea ere. Txostena ikasleari helaraziko zaio. Era berean, ikasleak Gradu Amaierako Lana egiteko baliabideak edukitzeaz arduratuko da, ikastegiaren posibilitate errealean arabera betiere.

4.2. GRALak zuzendari bat baino gehiago izan ditzake.

4.3. Unibertsitateko beste sail edo ikastegi batzuetako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago, graduan eskolak ematen dituen sail batekoa dena, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.

4.4. Ikasleak GRAL osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, GRALa unibertsitateaz kanpoko pertsonak zuzendu ahalko dute. Kasu horretan 4.1. ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat egon beharko da.

4.5. Ikastegiko Batzarrak edo hark horretarako izendatzen duen batzordeak, sailekin eta idazkaritzarekin lankidetzan, matrikulatzeko epea amaitu aurretik Gradu Amaierako Lanari buruzko prozedura bat idatzi eta argitaratuko du. Bertan azalduko du nola esleituko diren zuzendariak eta gaiak, bai eta lana zein hizkuntzatan egin eta defendatu ahal izango den ere.

4.6. GRALagatik irakasleei irakats betebeharrak zenbatzeko, UPV/EHUn indarrean den arautegia aplikatuko da. Arautegi horren arabera, sail bakoitzak GRALen kopuru bat esleituko die bertan atxikitako irakasleei, ikasturte bakoitzeko irakaskuntzaren programazio premien arabera.

5. MATRIKULARAKO, IZENA EMATEKO ETA ZUZENDARIAK ESLEITZEKO EGUTEGIA

5.1. Ikasleak graduko irakasgai guztiak gainditu eta gero egingo du Gradu Amaierako Lanaren matrikula. Beraz, aurreko ikasturteetako ikasleak kenduta, matrikula ekainean egin beharko da, fakultateko egutegi akademikoan zehaztuko diren datetan.

5.2. Ikasturte bakoitzean GRALaren defentsarako epeak, ahal dela, hauek izango dira:

UZTAILA: Ohiko deialdia

IRAILA: Ezohiko deialdia:

URTARRIL/OTSAILA: aparteko deialdia, graduko irakasgai guztiak gaindituta dauzkaten eta GRALa bakarrik geratzen zaien aurreko ikasturteetako ikasleentzat, eta arautegi honetako 2.4 puntuan aipatzen diren salbuespenezko kasuan daudenentzat. Matrikulazioari dagokionez, deialdi hau GRALa defendatzen den ikasturteari lotuta dago. Hortaz, graduko gainerako irakasgaiekin gertatzen den legez, 2014/15 ikasturtean GRALaren matrikula tasak ordaintzeak ez du eskubiderik emango defentsa 2016ko urtarril-otsailean egiteko.

5.3. Abenduan epe bat jarriko da (ikasturte bakoitzeko egutegi akademikoan zehaztuko dira datak) ikasleek lana egiteko eskaria aurkez dezaten fakultateko idazkaritzan. Eskarian zuzendaria eta gaia proposatuko dituzte, eta gai horrekin lotura handiena duen sailari zuzenduko diote. Dokumentuan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dituzte: egin beharreko lanaren deskribapena eta motibazioen, helburuen, metodologiaren eta espero dituzten emaitza teoriko-praktikoen laburpen bat. Gainera, nahi luketen zuzendariaren izena ere jarriko dute (nahi izanez gero, irakasle horri proiektua aurkeztu ahal izango liokete lehenago, tutoretza orduetan). Zein zuzendari nahi duen garbi ez badauka, ikasleak bost irakasle proposatu beharko ditu, preferentziaren araberako hurrenkeran, lanaren gaiarekin lotura zuzenena dauka(te)n saile(ta)koak. Gura izanez gero, ikastegiko sail bati baino gehiagori aurkeztu ahal izango diote

eskaria. Edozelan ere, nahitaez eman beharko dute izena Gradu Amaierako Lana egiteko.

Bigarren lauhilekoa hasi baino astebete lehenago gutxienez, sail bakoitzak zuzendarien behin betiko esleipena argitaratuko du. Zuzendariak esleituko dira beren irakats betebeharrak eta irakats eskaintza kontuan hartuta, eta ahalegina egingo da ikasleen nahia betetzeko. Edozelan ere, ikastegiko zuzendariak bermatuko du ikasle guztiek GRALerako zuzendari bana izatea.

5.4. Zuzendariak eta ikasleak beren bileren egutegia eta tutoretzaren nondik norakoak adostuko dituzte. Komenigarria denean tutoretza bilerak taldeka egingo dira. Etengabeko ebaluazioa erabili ahal izango da, eta hala eginez gero, zuzendariak behin-behineko txostenak egingo ditu, amaierako txostena egiteko baliagarri izango zaizkionak. Edozelan ere, amaierako txosten hori hartuko da aintzat notarako.

6. EPAIMAHAI

6.1. Sailek, ikastegiko zuzendaritzarekin batera, epaimahaiak eratuko dituzte. Ahal dela, horretarako aukeratuko dituzte lanean erabilitako hizkuntza dakiten eta aztergaiaren arlokoak edo gertukoak diren irakasleak. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetarako.

6.2. Epaimahai bakoitza hiru titularrek eta gutxienez, ordezeko batek osatuko dute, denak ere gradua ematen den ikastegiko irakasleak.

6.3. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira. Ikastegiak bestelako zehaztapenik eman ezean, epaimahaiburua eta idazkaria izendatzeko irizpideak kategoria eta antzintasuna izango dira. Epaimahaiburuak eta idazkariak zeinek bere karguan jardungo dute beti epaimahaian.

7. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

7.1. GRALa defendatu aurretik eta fakultateak deialdi bakoitzerako zehaztuko duen epean, ikasleak lan idatzia eta ikusizko dokumentazioa aurkeztuko ditu paperean, lanaren izaerak berak beste euskarri digital edo elektroniko bat eskatzen ez badu. Dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu tutorearen saileko idazkaritzan:

- **Dosierraren lau kopia paperean** (epaimahaikideentzat ale bana eta beste bat fakultateko gradu amaierako lanen erakusketan jartzeko, jartzea erabakiko balitz.

Ezinbestekoa da dossierraren azalean datu hauek jartzea:

ARTE EDERREN FAKULTATEA

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lana. Sorkuntza eta Diseinuko Gradua

Lanaren izenburua

Ikaslearen izen-deiturak:

Tutorearen izen-deiturak eta saila

Ikasturtea

Aurkezpenerako oinarrizko arau hauek bete ezean, sailtako idazkaritzek atzera bota ahal izango dute dossierra, akatsak zuzendu edo falta dena osatu arte.

7.2. Ikasleak epaimahaikideen aurrez aurre egingo du lanaren defentsa horretarako izendatzen den egunean eta lekuan. Ikastegia saiatuko da baldintzarik onenak jartzen ikaslearen aurkezpenerako. Eskakizun berezirik balego, defentsaren eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko litzateke.

7.3. Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola ere, GRALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

7.4. Ikasleak obra eramango du GRALa aurkeztu eta defendatzeko ekitaldira, epaimahaikoek bertatik ikus dezaten. Gainera, ikasleak ahozko defentsa egiteko 15 minutu izango ditu gehienez, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, edukiak, metodologia, eta lana bururatu arteko prozesua azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eske, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die.

8. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

8.1. Obra bertan ikusitakoan, ikaslearen aurkezpena entzundakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko

kalifikazioa eztabaidatuko du, GRALaren gidaliburuan argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memoria ezarritakoari jarraiki. Lanaren behin-behineko kalifikazioa defentsatik 24 ordura argitaratuko da, beranduen dela.

8.2. Ikasleak lana gaitzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere bidaliko zaio txostenaren kopia bat.

8.3. Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta letraz ere adieraziko da:

0 - 4,9: Suspentso (S)

5,0 - 6,9: Nahiko (N)

7,0 - 8,9: Oso ongi (O).

9,0 - 10: Bikain (B).

"Ohorezko matrikula" aipamena eman ahal izango da, UPV/EHU Gradua Amaierako Lana Prestatzeko eta Defendatzeko Araudian adierazten denaren arabera. Araudi hori Gradu Entseguetarako Kudeaketaren Araudiaren barruan dago, dagokion ikasturterako. Epaimahaiak uste badu lan batek ohorezko matrikula merezi duela, eskaria egin beharko dio fakultateko zuzendaritzari, eta, ohorezko matrikula gehiago proposatu badira legeak baimendutako kopurua baino, zuzendaritzak erabakiko du nori eman. Kasu horretan ikasleen espedienteko batez besteko nota izango da irizpide nagusia.

8.4. Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arauari jarraiki egingo dira, baina ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, lehenengo berrikuspena epaimahai batek berak egingo du eta bigarren instantzian ikastegiko Erreklamazio Batzordeak ebatziko du; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

9. GRALa eta IKASLEEN MUGIKORTASUNA

GRALa egiten duten bitartean (4. mailako 2. lauhilekoan) mugitzeko interesa daukaten ikasleei horretarako aukera bermatzen saiatuko da Arte Ederren Fakultatea, salbuespenez eta aplikatu beharreko arautegiek baimentzen duten neurrian. Kasu horietan ikasleek harrera ikastegian egin ahal izango dute lana, baina UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean defendatu beharko dute betiere. Egoera horretan dagoen ikasleak GRALaren tramite guztiak egin beharko ditu

(izena eman, matrikula egin, defentsarako eskaria aurkeztu eta abar), eta komunikazio erraz eta etengabea izan beharko du bere zuzendariarekin.

10. AZTERKETA ETA HOBEKUNTZA

Ikasturtea amaituta, Akademia Antolakuntzako dekanordeak txosten bat aurkeztuko du, GRALei buruzko datu nagusiekin, hau da:

GRALa egiteko eskarien kopurua

Defendatutako GRALen kopurua

Zuzendarien zerrenda eta zuzendutako GRAL kopurua

GRALeke epaimahaietan parte hartu duten irakasleen zerrenda.

Gorabeherak eta oharrak

Hobetu beharrekoak

Fakultateko batzarrak berretsita 2020ko uztailaren 17an